

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Otsailak16, 51. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

M.K. Zubillaga:

“Izatez, denok gara bisexualak”

**AURRERANTZEAN
ARRASATE PRESS
OSPITALE ZAHARREAN
(Tfnoak: 77 09 40 - 77 05 68)**



Ikerlan, eguraldia aztertzen



**MODELO
BERRI-BERRIA
MUGARRI**

ARRASATE TELEBISTA

(ATB)

**SINTONIZATU
GURE AJUSTE-TAULA
ZURE TELEBISTAREN
23. KANALEAN
UHF_n**

OHARRA: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko amplifikadorea (2.000 - 3.000 pta. inguru) jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzailearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebeha.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzloa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazloa: Goio Arana

Erredakzio-kontsellua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele
Zuazubiskar, Pabli Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.000 ale

Lege-Gordallua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



Karikatura

Oinezkoen borondate ona zeharo ikararazi duen kasua da Juan Guerrarena. Eta gertaera hori bere osotasunean aztertuko bagenu, agian gehien harri gaitzakeena ez litzateke anaiaren joko maltzur eta zikina izango. Ordea, politika erizlerik gehienei bezala, Alfonso superahaltzuaren makineismoa genuke gutxien gustatu zaiguna. Horixe bera irudituz zaie komunikabideetako profesionalei eta horrela ezagutarazi digute prentsa, irrati eta telebistaren bidez.

Guerraren kasuak izan dezakeen seriotasunaren barnean, salaketa egiteko estilo batek nire arreta irabazi du, hain zuzen ere, hura irribarrearen bitartez kaleratu nahi izan duela. Karikaturari nagokio. Ez dakit zenbat txiste eta irri-marrazki ikusi ahal izan dugun egun hauetan, ardatz nagusia bi anaien lotsagabatasuna izanik. Ene ustez, karikatura horiek eragin handia izan dute irakurleen baitan, zeintzuek hainbeste aitorten eta kontraitorpenen artean argi pixka bat eskatzen zuten. Karikaturek, beti bezala, marraren bitartez ordeztu dute esatera.

Frantziako idazle batek aspaldi zioen bezala, moralak gehiago zordio satiraren beldurrari birtutearen

atxikimenduari baino. Eta ez dut uste oker zebilenik, izan ere inork ez baitu irrigarri bihurtzea maite. Areago, deabrua bailitzan egiten dugu ospa, gure irudia barregarri erazi dezakeen edozein pertsona nahiz egoeratik. Karikatura, zapalduak zapaltzaileen aurka erabilitako kritika-bitaraterik baikorra da, gizona gizon denez geroztik, krimenak, injustiziak eta gizakien ahalgetasuna hobekien ezagutarazi eta zigorterazi dituen erreminta baitugu. Franco diktadorearen garaietara jauzi txiki bat besterik ez dugu egin behar, "La Codorniz", "El Hermano Lobo", eta antzeko publikazioen arrakasta oroitzeko.

Hain zuzen ere, Guerraren jazerara horren salaketarako karikaturaz hainbeste baliatzeak iragan hurbileko eguna ekarri dizkit gogora. Botearearen gehiegikerien kontra arteak baditu bi irtenbide: literaturan satira izenekoa; marrazkigintzan, berriz, karikatura. Bata nahiz bestea garpenerako elementu bihurtzeko trebeki erabiliak izanez gero. Gizadiaren ideiak, izadiaren indarrak bezalaxe, lanaren itsasoak zeharkatzeko arraunak ditugu, hots, inoren menpe bizi ez gaitezen planeta honen behar dituen plankak.

Josemari Velez de Mendizabal

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

EKI-k erantzun

Altamira ingurutik San Kristobaleko kanposantu berrira Udalak eraiki gura duen errepideak afektatzen dituen partikularrek bidalita, Arrasate Pressen agertutako ohar batean, ekologistek, orokorrean, gai honi buruz ezer egin ez dutela salatzen zen.

Honi buruz, esan beharra daukagu inor ez dela ezer esatera guregana etorri, oharra irten arte.

Ekologi talde moduan gai honi buruz zerbait esan gura dugu. Interes pertsonaletan sartu barik, ekologi ikuspegitik eta udalaren ibilbidea eta afektatuek aurkeztatutakoa ezaguturik, ondorengoa esan gura dugu.

Inguruak interes "garrantzitsurik" ez badu ere, ekologia eta paisai aldetik, gizonaren eraginagatik, batez ere, ibilgailu gutxi dabilen ingurua da. Beraz, leku horretan errepidea eginez gero, trafiko itzela izango da, kutsadura gehituz, zarata zein giro aldetik.

Baina, errepidearen kontra egoteko, arrazoi nagusiena, gaurko eguneko leku horretara heltzeko bide bat dagoela da, zabortearen bidea, Mietzerretatik gora. Bide hau ia eginda dago eta zaborteia desagertzean libre geratuko da. Badakigu Udalak akats teknikoak jartzen dituela aitzakitzat, desnibela bereziki, baina jakin badakigu Udalak kanposantura heltzeko bide bera zabaldu gura duela. Geure buruari galdetzen diogu desnibel hau hain garrantzitsua ote den, zeren hara joango direnak kotxeak izango diren; gainera, dirudienez bidearen azterlana egiterakoan, eurek diotenez, paisaiaren eragina ekidin gura izan dute, (baina ez ekologia). Zalantzan gaude azken hau benetan kontutan hartu duten, zeren eragina askoz ere txikiagoa izango litzatekeen Mietzerreka aldetik, oso leku kaltetua ekologi ikuspegitik. Udalak heltzeko bi errepide aurrikusi baditu, problema berri bat iruditzen zaigu: Bizkaialderako irteera-bide bat litzateke, trafikoa gehituz, guzti honek suposatzen duenarekin.

Eta Arrasatek pista, errepide eta proiektu berri larregi duela uste dugu, beste bat egiteko. Administrazioa proiektu hauen arduraduna da eta uste

dugu Udalak problema hauek kontutan hartu behar dituela eta, ahal den neurrian, ekidin herri honetako hondaturik dagoen ingurugiro naturala gehiago kaltetzea.

Udalak paseatu egin daitekeen helbidea egin gura badu, egokiagoa iruditzen zaigu, leku honetatik oinezkoen pasealeku bat eta kotxez heltzeko Mietzerreka aldetik. Azkenik, esan beharra dugu Ekologi Talde moduan, ez gaudela Altamiratik igarotzen duten bide proiektu baten edo bestearen alde, ez eta partikularrek aurkeztutakoaren alde ere.

EKI (Euskadiko Komite Antinuklear eta Ekologistak)

Haratuzte kartel-"lehiaketa" dela eta

Gaur egun egunkarietan gauza harrigarriak irakurtzen dira, baina ez nuen espero oraingoan Arrasateko gutunean irakurriko nuenik. Gauza ez da non baizik "zer" irakurri nuen.

Hau da, haratuzteak gainean ditugula eta, kartel-lehiaketa egin da, edo egin dute batzuk, gure herrian, baina "lehiaketa" arraro samarra izan da, "bingo" estilora egin denez gero. Dirudienez partaideek egindako "lanak" (ez dira bi minututan egiten) lehiaketako epaileek aukeraketa joku bat izango zen bezala konpondu dute, txanpon bat airera botata.

Horrela aukeratzen direla jakinik, lanak entregatu behar diren tokian entregatu beharrean, joku-etxe batetan entregatu beharko dugu.


Egin ditzagun gauzak egin behar diren bezala eta ez 5 pta.ko (25, 50, 100, 200 edo 500eko batekin, berdin dit) hogierleko edo txanpon batekin. Nire ustez, oraingoan 22 partaideei adarra ederto jo diezue, eta merezi ez duten "burla" egin.

Hurrengoan errespeta gehiago partaideak eta ez hartu hauek burlagarritzat eta txorimalotzat.

Errespeta gehiago besteen lanak.

Piku

Nola ikusten duzu abortoaren legea?



Esteban Otadaui
(langilea)

Nire ustez gutxi da, emakumea libre izan beharko litzateke nahi duena erabakitzeko.



Elbira
(etxeakoandrea)

Nik ez dut ondo ikusten. Nire ustez, behin emakumea haurdun egonez gero, haur hori izan egin behar dela uste dut. Beste gauza bat da lehena-go neurriak jartzea haurrik ez izateko.



Asun Roa
(etxeakoandrea)

Baietz esan beharko. Hala ere, aurdun ez gelditzeko neurriak jarri beharko liratekeela uste dut.



Joxe Etxebarria
(langilea)

Nahiko eskasa dela uste dut, batez ere, umeak ez dituztelako agintariek edo gizonek egiten, emakumeak izaten ditu eta berak erabaki beharko luke.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LAISTER: AUTOBUSa eta KAMIIOIa

ARRASATE - ESKORATZA

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Garagarza auzoa z/g Tinoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------

9 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Bird". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Avis". 10,30etan.
- Bertso afaria: AED elkartean, gaueko 9,30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

10 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Socios y sabuesos". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Avis". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen batzarre nagusia. Eubako Pasionisten konbentuan, arratsaldeko bost t'erdietan.
- Txibisto: Egan, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

11 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Socios y sabuesos". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Avis". 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

12 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Socios y sabuesos". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Avis". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: Santiago Español. Iturriotz.

13 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Socios y sabuesos". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: "El Salvador: luchamos por la paz". Monterroneko hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

14 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

15 OSTEGUNA

- Dantzaldia. Abaroa jubilatuen elkartean, arratsaldeko 6etan.
- Zineklub: "Alemania en Otoño". Amaia antzokian arratsaldeko 8,30etan.
- Goardiakok farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

IKASTAROAK

Zeramika ikastaroak. Leintz Zeramika Eskolan. Ikastaroek lau hilabete iraungo dute, otsailaren 12tik ekainaren 12ra. Bi orduko ikastaroak, astean hiru egunetan. Bi txandatan banatuak, arratsaldeko 3etatik 5etara eta 7etatik 9etara. Hasiberri eta arituentzako.

Txalaparta ikastaroa. Gazte zerbitzuak antolatuta, otsailaren 24tik maiatzaren 5era bitartean, larunbatero. Bi txandatan banatua, 9etatik 11etara eta 11etatik letara.

Argazkigintza, informatika, tailaketa, antzerki eta ingeles ikastaroak. Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentruak antolatuta. Izen emateak zentruan bertan.

Jantzigintza, Laguntza Pertsonala eta Sukaldaritza-gozogintza ikastaroa, lanbide-hastapenerako zentruan. 16-19 urte bitarteko gazteentzat.

Page-Maker II. Otsailaren 26tik martxoaren 2arte. Izen emateak arrasateko IMIn.

IRTEERAK

Tologorri-Eskutzi. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, hilaren 11n. Izen emateak betiko lekuetan eta Besaideren lokaletan.

ERAKUSKETAK

Bergarako POL-POL mendizale elkartearen aretoan hilaren 13tik 19ra bitartean "*Presoek egindako lanen*" erakusketa.

BIDEO-EMANALDIA

GOONIETARRAK



Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: otsailaren 10

Ordua: arratsaldeko 4etan eta 6etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



GIPUZKOA

HERRI Irratia

“Euskal Herriko kooperatiba mugimendua garrantzitsuena eta aurreratuena bezala ezagutzen da mundu zabalean, beste gauza batzuen artean Mondragoeko kasuari esker eta beste nazio batzuetan kooperatibak sortzeko izan duen eraginagatik”

(Bruce Thondarson Nazioarteko kooperatiben Aliantzaren zuzendariak “Jardun” aldizkarian)

“Gorbachov politikari bikaina da; behintzat, ideia berak mantentzen ez ditzutenekin batzeko gauza delako, horrela lortu gura diren helburuak lortuz gero: bere boterea eta prestigioari eustea. Zalantzarik gabe Gorbachov-en irudia indartua eta prestigiatua atera daiteke Aita Santuaren harrera dela eta...”

(Jose Mari Mendizabal apaizak “TU-Lankide” aldizkarian)

“Deba Garaian dagoen giroarekin, oso zaila da goi mailako kirolaririk ateratzea. Bailara horrek Las Vegas ematen du. Kontuan izan txirringulariek, adibidez, lasterketa gehienak goizeko bederatzietan izaten dituztela. Horretarako, goizeko seietan edo jaiki behar gosaltzeko. Bere lagunak, bestalde, parrandan egongo dira, oraindik etxeratu barik. Oso mundu desberdinetan biziko dira, gaez batzuk, kirolarekin zerikusirik ez duten baloreen artean, eta txirringulak inposatzen dituen baldintzapetan besteak. Hitz egiteko orduan, ez dute mintzagai amankomunik izango. Baldintza horietan oso gogorra da aurrera egitea, eliteko kirolaria izateak eskatzen dituen sakrifizio guztiekin”

(Sabin Padilla fisiologo eskoriatzarrak)

Epe laburrean euria egiten hasiko dela uste duzu ?

Bai, nire ustez martxotik aurrera euria egiten hasiko da. Martxoaren 10ean aurtengo azken tenporak izango dira, laugarren tenporak eta orduan mendebala



geratuz gero, euria egiten hasiko da. Momentu honetan ziur ezin esan dezaket euria egingo duenik, baina nik behintzat, euria egingo duen esperantza dut.

Gabon Zaharretarako ere elurra iragarri nuen eta bistan denez, ez nuen asmatu. Gabonetako tenporetan, ifarra eta hego haizea biak geratu ziren. Ifarrak hegoa gailendu izan balu elurra izango genukeen, baina hegoa jarri zen eta beraz, ez zuen euririk ez elurrik egin.

Ni tenporez baliatzen naiz eguraldia iragartzeko, badakit arriskutsua dela, baina nire ustez euria egingo du eta martxoan eta apirilean euri ugari izango dugu.

Esan beharra dago, aurtengoa oso urte arraroa dela, inolako euri eta elurrik gabe. Horrelako urteak gogoratzen ditut nik. Gerra denboran ere horrelako beste urte bat izan genuen, inolako elurrik gabekoa, baina harrez gero ez dut horrelako urterik gogoratzen.

Esteban Etxabe,
arituia.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

BOLINTXO
kirolak

Ibargarai 10, BERGARA

**OSO GAUZA
BEREZIAK**


Zerkaosteta 8

HB, Oñatiko Gobernu Batzordetik kanpo

Pasa zen astean, Eli Galdos Oñatiko Alkateak den Herri Batasuneko bost zinegotziak Gobernu Batzordetik kanpo uztea erabaki zuen. Era berean, komunikabide guztiei ere debekatuko egingo zaie Gobernu Batzordean sartzea.

Arazoaren muina, azken aldian agertutako pintadak izan ziren. Itxura denez, azken bietan EAJko bi militanteren aurkako mehatxuak jaurtizten ziren bertan, eta hortik Eli Galdosek hartutako erabakia.

Beste neurri batzuk ere hartu zituen Alkateak; hain zuzen ere Javi Altube, Alkateorde eta Hazienda Batzordeburu zen, Mila Loidi Gazte Batzordeburu zen eta J. A. Amunda-



rain Euskara Batzordeburu zen baren karguetatik kanporatzea. Miguel Etxaburu eta Jose Mari Larrañaga, ostera, ez zituen betetzen duten karguetatik bota.

HBren hitzetan, ez dute gertatukoa ulertzen, beraiek ere pintada horien aurka azaldu bait ziren.

■ 1.852 ikasle EPPn

Eskolak kaleratu berriak ditu 1989-90 ikasturteari dagozkion matrikula kopuruaren datuak.

Batxilergoan, guztira 515 ikasle sartu dira aurten, aurreko ikasturtean baino 12 gutxiago.

Heziketa Teknikoari dagokionez, 89-90 ikasturtean 267 ikasle matrikulatu direla esan behar, aurrekoan baino 49 gehiago.

Injinerutza prestaketa urtean eta Injinerutzako 5 mailatan, ostera, 970 ikaslek hartuko dute parte.

Esan dezagun, laburtuz, aurten 1.852 ikasle sartu direla Eskola Profesionalean. 1988-89an 1701 izan zirela kontutan hartuz, 151 matrikula gehiago egin direla aipatu behar.



Santa Ageda koruak

Primerako eguraldiaz kaleratu ziren igandean Santa Ageda koruak.

Iaz milioi t'erdi pezeta batu ziren, eta aurten gutxiago ez izatea espero dugu. Lortzen den guztia Karitas-i emango zaio, eta erakunde honek erabakiko du gero xoxak nola banatu, beharren arabera.

Aurtengo beste premia larrienetako bat konpontzen ere saiatu dira, uraren beharrarena, hain zuzen ere. Baina emaitzak ikusita, ahots lar onak dituziela esan behar.

Bainugela-erakusketa

I RE KI B E R R I A !!!

ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE

KIUB-en datuak


Pasa zen astean, KIUBek 1989 urteari dagozkion datuak iragarri zituen. Horrela, 324 ekintza hasi eta horietatik 320 bukatu ziren.

Amaitutako ekintzen artean, 210 kontsultak ziren, 96 salaketak, eta 14 informazio kanpainak.

Etxebizitza, zerbitzu pribatu, monopolio, industri produktu eta jakiak dira, nonbait, arrasatearren kezka nagusiak. KIUBen bulegoan jasotako kontsulta eta herritarren salaketen kopuru handienak gai horiekin lotuta egon dira.

Informazio kanpainen asmo eta helburua, legearen kontrako salmentak zeintzu diren ezagutzera ematea izan da.

Datuen arabera, honako aktibitate hauek bultzatu zituen KIUBek 1989an: helduentzako kontsumo ikastaroak, HHI-EPA zentruan, kontsumo-informazioz hornitutako fitxa artxibagarriak kaleratzea, komunikabideetan kontsumo-informazioa zabaltzea, helduei zuzendutako ihardunaldietan, eta baita gazteentzako antolatutako ihardunaldietan ere Kontsumo tailerrak, etab.



110 familiak gas-naturala

Laster hirugarren fasea; 868 eskakizun berri

Orain gutxi bukatu zen Arrasaten egiten ari den gas-natural instalaketen bigarren fasea. Fase horretan, sarea Arrasate Pasealekura, San Juan auzora eta Erguineko zati batera (Gorostizara, hain zuzen) zabaldu da. Dagoeneko 110 familiak jasotzen dute gas-naturala etxean.

Oraindik ere beste 868 eskakizun daude erantzunik gabe; baina horietariko asko, lau aste barru hasiko dituzten hirugarren faseko obren ondorioz konponduko dira.

Lehenengo fasean zortzirehun metroko sarea luzatu zen. Bigarren hiru kilometro t'erdikoa. Laster hasiko duten hirugarrenean, ostera, bi kilometro t'erdiko sarea eraikiko da. Guztira, sei kilometro eta zortzirehun metro.

Hirugarren fasean, gas-naturala honako toki hauetara hel daiteke: Juan Carlos Guerra kalea, Ferixalekua, Zarugalde kalea, Munar auzoa, eta San Andreseko Revuelta eta

Leintzibar kaleetara ere.

Lan guztiak, Eusko Jaurlaritzako energi sailaren ardurapean lanean diharduen Natur-Gas enpresak egin ditu.

Enpresaren arduradunen hitzetan, zerbitzuak oso harrera ona izan du Arrasateko biztanleen artean; ondorioz, posibilitate handiak leudeke hasieran pentsatu ziren fasekopurua zabaltzeko.

Eusko Jaurlaritzak, epe luzean itzultzeko diru-laguntzak eskaintzen die gasa etxeratu nahi duten familiei; hori bai, beti ere bakoitzak jasotzen dituen diru-sarrerak ikertu eta gero.

Urteko 3 milioi t'ardi baino gehiagoko sarrerak dauden etxebizitzatan, obren aurrekontu osoaren %20a lor dezake familiak. Beste puntan, urteko milioi t'erdiko kopurura heltzen ez direnak; eurentzako, subentzioak kostuaren %90an helduko lirarteke.



GATZAGA
Jatetxea

Arrasateko jatetxea

Olarte kantola 3,
Tfnoa: 79 84 53

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24



Eukal egunkaria aztergai

Otsailaren leian, osteguna, AEDk antolatuta Euskal Egunkariari buruzko mahaingurua burutu zen Monterron hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan. Bertan izan genituen Jon Basterra, Iñaki Zumalabe eta Amatiño kazetariak, eta Josu Legarreta (Eusko Jaurlaritzako euskara arazoetarako zuzendaria). Moderatzaile lanetan Joxe Aranzabal, Arrasate Press-eko zuzendaria.

Jende asko hurbildu zen Monterronera, agian gaiak azken hilabeteotan hartu duen indarrak bultzatuta. Giro lasaiean burutu zen mahaingurua, eta zenbait argibide ere jaso ahal izan genuen.

Josu Legarretaren hitzetan, Jaurlaritzak zenbait herri euskaldunetan Arrasate Press bezalako astekariak bultzatzeko asmoa du, baina egunkariaren proiektua baztertu gabe (Jaurlaritzak egunkariaren proiektua aztertzen dihardu une honetan).

Iñaki Zumalabek, "Egunkaria sortzen" taldea euskal egunkariaren proiektua lantzen dabilela argitu zuen, eta egunkari honek izan behar dituen zenbait baldintza aurreratu ere. "Egunkaria sortzen" taldeak bultzatutako egunkaria nazionala, profesionala eta zabala izango da, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaz finantzatua baina pribatua. Hala ere, partaideen militantzia ezinbestekoa dela adierazi zuen Iñaki Zumalabek. Jon Basterrak ere bat egin zuen argumentu horiekin.

Amatiñok, ostera, gaur egun militantziaz ezin dela inolako proiekturik bultzatu adierazi zuen. Bere ustetan, EITBren inguruan sortu beharko litzateke egunkaria, erakunde honek gaur egun duen onarpen zabalagatik.

Mahai ingurua, bi orduz luzatu zen eta azkenean galdera erantzun saio laburra ere izan zen.

Usteak uste...

Sabin Padillak asko daki kirol eta kirol-medikuntzaz. Zenbait medikuren ustez, bera dugu Euskal Herriko fisiologorik onena. Frantzian goi mailako kirolari eta medikuekin egindako lau urteek abaldu egiten dute haren jakituria. Gu Gasteizeraino joan ginen eskoritzar kiroltzale gazte honekin berba egitera.

Gauza asko esan zigun Sabinekin, baita gure herriari buruz ere. Kirolaren egoeraz Arrasaten galdetu genionean, eginda egon arren, hemen inoiz ez dela kirola arrazionalizatuko duen plangintzarik martxan jarri esan zigun. Arrasatek ez duela, zioskun, aparteko inbertsio handirik egin behar, dagoeneko hainbat azpiegiturazko baliabide hemen dagoelako, Zentruko traumatologia saila, eta Lagun Aroko laborategiak kasu. Berak, Sabinekin, eta Lagun Aroko Roman Balanzategik kirol-plangintza zehatza prestatu zutela, orain bi urte Udaleko kirol arduradunari eman eta, agur Ben-Hur. Harez geroztik, ez dutela ezer gehiagorik jakin izan gai horretaz.

Kontuan hartzeko faktorea izanda ere, dirua ez da egitasmoak aurrera egiteko oztopo bakarra. Mondragoek aurten 2.100 milioi inguruko aurrekontua izango du, datorren astean bere horretan onartzen bada, behintzat. Dirua egon, badago. Askotan gauzak aurrera eramateko borondatea edo ahalmena falta zaigu.

Modu batean edo bestean, kirola egiten duen jendearen kopurua ugaltzen ari dela jakinda, kontuan hartzekoak dira horrelako abisuak.

Joxe Aranzabal

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



Roneok, 2.400 milioi inbertitu

2.000 milioi Kataiden; 400 Moduramairen erosketan

Egunkari batean UCEMek Roneoren %25a saltzeko asmoa zuela esan bazen ere, ez omen da egia.

Roneo enpresa indarrean dabil, antza. UCEMek aditzera eman duenez, Roneoren kapital zabaltzea prestatzen ari da, ondoren burtsan kotizatzen sar dadin.

Horrekin batera, Roneok Logroñoko *Modurama* enpresa erosi du 400 milioitan. Honen instalazio berriak eta zabalera aprobetxatuz, uda partean martxan jartzeko moduan izango da. Inbertsio hauen bidez

Roneo bulego altzarien sektorean finkatu nahi da.

1.650 milioi dira, bestealde, Roneok kataideko industrial inbertitu dituenak. Bigarren epe baten diru hori 2.000 milioitara igoko da. Guztira 29.000 metro karratuko instalazioak egin dira Kataiden, goi mailako Teknologia erabiliz. Zuzendariek aditzera eman dutenez, udaberriko ireki nahi dituzte instalazioak.

Krisian egon beharrean, Roneo sasoi onean dagoela dirudi. 2.400 milioiko inbertsioa lekuko.

■ Fagor, Luzuriaga erostekotan

Fagor taldea, bere aldetik, ez dago geldi. Orain hilabete batzuk *Fabrelec* eskuratu bazuen, oraintsu jakin izan da autoentzako osagaiak egiten dituen *Luzuriaga* enpresa erosteko itxaron zerrendan dagoela Arrasateko kooperatiba elkarteak.

Fagorren barruan, Ederlanek dihardu autoentzako konposagaiak egiten. Dirudienez, erosketa ahalegin hau taldeak sektore horretan dituen interes eta asmoak finkatzeko eman da, hainbat enpresaren egoera txarrak -Luzuriaga bame- merkatuan eragiten dituen gorabeherak desagertarazteko asmoz.

■ Antzerkia Bergaran

Otsailaren 16an, ostirala, Bergarako "*Taun-taun*" txontxongilo taldeak "*Lam eta lorea*" obraren antzespina eskainiko du. Emanaldia gaueko 10etan, Orfeoko egoitzan (Zabalegi dorreko areto nagusian). Lehen aldia izango da "*Taun-Taun*"ek obra hau euskaraz antzestuko duena; sarrera, seguraski doan.

Jaiotzak

Arrese Unamuno, *Iratxe*.

Urtarrilaren 27an.

Azkarate Errasti, *Aitor*. 30ean.

Usabiaga Isazelaia, *Izar*. 30ean.

Garcia Horriilo, *Daniel*. 31ean.

ARRASATEKO UDALA

Arrasate herriko Zoru Ez Urbanizagarriko Arau Osagarrien Aurrelaburpenari dagokionez, iradokizunak eta, hala badagokio, beste planteamendu-alternatiba batzuk aurkezteko jendeaurreko informazioaren epealdia datorren otsailaren 16an bukatuko da.

Arrasaten, 1990eko urtarrilaren 25ean

ALKATEA



S. Andres auzoaren ikerketa

Heburua, hobekuntz proposamen zehatzak aurkeztea

Otsailaren 1ean, Kurtze-Txiki dorrean emandako prentsaurrekoan, San Andres auzoari buruzko ikerketaren lehen faseari dagozkion xehetasunak aurkeztu ziren.

Ikerketa hiru fasetan banatu, eta helburu jakina burutu nahi du: San Andres auzoa modernizatzea, hobetzea, zuzoertzea; hau da, San Andres erakargarri bihurtzea.

Lehen fasean estudio teknikoak burutu dituzte: noiz egin zen, nola, zer behar dituen, zenbat eta nolako biztanleak dituen, eraikuntza motak...Era guztietako informazioa

ahalik eta gehien biltzen saiatu dira.

Dena hurrengo faseei begira, ezin bait dugu ahaztu ikerketaren ondorioz jendeari hobekuntz proposamen argiak eman behar zaizkiola. Fatxadetan, berogailu sisteman, aparkalekuetan, loratokitian, igogailu sisteman, etab.etan egin daitezkeen hobekuntz proposamenak, horrek izango dituen kostu eta subentzioak zehatz-mehatz azalduz.

Dena den, gogoratu orain arte egindako lan guztia, Kurtze-Txiki dorrean izango duzuela ikusgai otsailaren bukaera arte.

46ko kintoak

Urtero bezala, aurten ere 46ko kintoak euren eguna ospatzeko asmotan dabilta. Data martxoaren 3a izan daiteke. Zenbat lagun bilduko diren aurrez jakiteko, deitu Santos Zeziagari, 792373 telefonora.

Osasun ziuertagiriak Mondragoen

Orain gutxi zabaldu da Juan Carlos Guerra plazako 1ean, *Prest* izeneko zentru psiko-medikua. As-telehenetik ostiralera aurkituko duzue zabalik, arratsalde, 4etatik 6etara. Bertan, gida-txartel eta ama-baimenatarako osasun ziuertagiriak emango dira.

Aurrekontuen plenoa

Hasieran aste honetarako pentsatua bazegoen ere, atzeratu egin da 1990 urteari dagozkion aurrekontuak onartzeko plenoa. Alderdiak azken orduko adostasuna bilatzen dihardute; hori lortzen dutenean, Udaleko plenoan heldu beharko da azken onespena.

Arrasate Press eta ATB

Astelehenetik aurrera, Sebero Altube plazako Ospitale Zaharrean kokatuko dira bi komunikabide hauek. telefono berriak, ATBkoa 77 06 98, eta Arrasate Pressekoak 770940 eta 77 05 65. Zerbaitetarako behar bagaituzue, badakizue nora jo.



BEHERAPENAK



LORAMENDI
KIROLAK

- Lumatxak
- Anorakak...

AUKERA ZABALA

azken
egunak

LORATEGI

taberna


Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



Euskararen hitzarmena

Martxoaren amaierarako, sinadura publikoa

Dagoeneko, hogeitabi dira Arrasateko Udalak onetsi zuen euskaren erabilpenaren hitzarmena sinatzeko prest dauden erakundeak.

Besteak beste, honako hauek: Udala, AED, S. Frantzisko Xabier, San Viator, Umezaintza, EPP, Aurrezki Kutxa Munizipala, AZK taldea, Erdi Euskaltea-AEK, Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentrua, Besaide M.E, San Andreseko Ikastetxea Publikoa, Musakolako Ikastetxea Publikoa, Erguineko Ikastetxea Publikoa, Lagun Aro S.A., Eskoriatzako Irakasle

Eskola, Hotz-Bero enpresa, Nekane San Miguel abokatua, Arrasateko Institutua, ELA-STV, EE eta HB.

Dena den, zerrenda luzea hor ez bukatzea espero da, eta beste hainbat erakunderekin ere hasiak dira harremanak, hain zuzen: Lankide Aurrezki, Gipuzkoako Kutxa, Deba Garai-ko Mankomunitatea, Hezibide Elkartea, EAJ, EA, CCOO, LAB, LKI, Arrasateko Parrokoa, Mondra eta Skautekin ere.

Laster batean, parte hartzea eskatuko zaie Abaroari, Arrasate Musikali, kultur eta Kirol Elkarteei, etb.

Euskararen erabilpena

Gobernu-Batzordearen onespena jaso ondoren, otsailaren hirugarren astean, urtero bezala, euskararen erabilpena neurtzeko ikerketa egingo da Arrasaten. Ekimena Euskara Batzordetik irten da, eta beste urte batzuetan ateratako datuekin konparatzeko aukera emango dio Udalari.

Ikerketa lanean, dëndatan, tabernatan eta baita bizitza publikoan ere egingo da.

Ospitaletik Anbulategira

Aste honetatik aurrera, Eskualde Ospitalean hartzen ziren zenbait kasu Anbulategira pasako dira. Barne-medikuntza, dermatologia, liseri apartatua, otorrinolaringologia, traumatologia eta zirurgia orokorreko kasuetarako, hain zuzen ere. Aurrerantzean Anbulategira deitu beharko da orduan eskatzeko.

Aldaketa honekin hasiera ematen zaie ospitalean egingo diren moldaketeki. Hutsik geldituko den espazioa, larrialdi zerbitzua handitu eta zabaltzeko erabiliko da, orain arte oso murriztua zegoen eta.

Udalpeko bazkideak

Otsailaren 14ean, asteazkena, arratsaldeko 7etan egingo da Udalpe Elkarteko bazkideen Batzar Orokorra. Era berean, gogoratu nahi zaie ere hildako bazkideen omenezko meza otsailaren 11n izango dela, parrokiari, goizeko 11etan.

Kabia
Altzariak
 Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

VE ECUADOR
 Kontzesifio 2,
 Tfnoa: 79 14 06
 ARRASATE

KLINIKA DENTALA
 DOANEKO AURREKONTUA
 * Odontologia orokorra
 * Protesi finkoa
 * Protesi mugikorra
 * Haur eta helduentzako ortodontzia
 Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

LARRINGAN
 auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN
 Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Otsailerako kultur programazioa

Antzerkia, zinea, haratuzteak, ikastaroak...

Hasi berria dugun otsailean, hainbat kultur ekitaldi burutuko dira Arrasaten. Besteak beste, honako hau duzue hilaren 28a arte dastatu ahal izango ditugun saioak:

Otsailaren 9 eta 23an, ostiralak biak, bertso-afariak AEDn, 9,30etan. Izen-emateak ostegunetan, 79 54 46 tfno.an. 700 pta.

Otsailaren 11n, igandea, mendira irteera goizeko 7etan, Tologorritik Eskutzira.

13an, asteartea, hitzaldia Monterronen; gaia, "El Salvador: luchamos por la paz".

15ean eta 22an, ostegun arratsaldeetan jubilatuentzako dantzaldiak. Abaroa Egoitzan, arratsaldeko 6etan.

Ostegunetan ere, zine emaldiak Amaia antzokian, arratsaldeko 8,30etan. Otsailaren 15ean "Alemania en otoño" filmea; eta 22an "Autobiografía de una princesa". Sarrera 250 pta., eta gazte txartelarekin 200.

Gogoratu ere 17an, larunbata, Duodeno antzerki taldeak "Pasen y mueran" antzerki saioa eskainiko duela Amaia antzokian, gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pta, eta gazte



17an "Pasen y mueran" antzerki lana Duodeno taldearekin

txartelarekin 300.

Bukatzeko, aipatu behar otsaila haratuzteen hilabetea dugula. 24ean hasi, larunbata, eta asteazken goizalderarte luzatuko da jaietarako prestatu duten egitaraua. Dena den, aurrerago emango dugu horren berri zehatzagorik.

Ikastaroak

Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu hainbat ikastaro jarriko dela martxan otsailean. Hain zuzen ere:

12an, asteartea, Iozketa ikastaroaren hasiera, Santa Teresako Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, 4etan.

19an, astelehena, argazki-gintza, informatika, taila, antzerki eta ingeles ikastaroen hasiera, HHI-EPAn.

19an eta 26an ere, astelehena biak, Page Maker ikastaroaren hasiera IMIn.

Txalaparta ikastaroa, otsailaren 24ean hasi eta maiatzaren Seraino luzatuko dena. Larunbatero izango dira klaseak, eta izen emateko epea otsailaren 16an bukatuko da (jo Gazteria Batzordearen 790900 tfono.ra).

Programazioarekin amaitzeko, oroit dezagun otsailaren 12tik ekainerarte iraungo duela Zeramika ikastaroa. 3 egun astean, 2 ordu egunero. Plaza mugatuak izango ditu, baina izena emateko, oraindik ere, zabalik dago epea Leintz Zeramika Eskolan (Tren geltoki zaharrean).

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

SAMEGO GARBIKETAK
Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

Almacen del Mueble Mondragon
Prezio paregabeak Zatozte!!
Gipuzkoa Etorbidea 6, Lehena behea. Legarre

ARRASATE PRESS
79 71 64



Hil guztien bigarren eta laugarren ostiraletan feria eguna egin ohi da tren geltoki zaharraren ondoan. Bertan nekazal tresneria, txerriak, etab. saltzen dira, baita landareak ere.

Jose Antonio Oianguren, Eskoriatzako iturginak geriza arbola sorta bat erosi zion -350 pta. aleko- Zaldibartik etorritako saltzaileari, bere etxeko ortuan landatzeko asmoz



Oso zamatuta aurkitu genuen Alfonso Garcia, Bilbo eta Gasteizerako Mondragoeko mandataria. Zarugalde kalean du bulegoa, 33. zenbakian. Hamaika urte darama lan honetan eta itxura guztien arabera, ez dabil lan faltan.



Natibitate gauean, suak Erdiko Kalean dagoen *Luco* dendaren gaineko etxebizitzak jo zituen. Kalteak nabarmenak izan ziren, bai

bertan bizi ziren familientzat eta bai etxebehoko komertzioarentzat ere. Oraindik ere gogor segitzen dute konponketa lanetan.

Asteartea egun benetan berezia izan zen **Munarreko neska-mutikoentzat**. Goizean goiz, *Hirurok Erakuntzak* enpresako langileak ziburuak jartzen hasi ziren. Haurrak, konturatu orduko

bertara hurbildu eta ez zuten galdu nahi izan lehenak izateko aukera. Helduren batzuk ere agertu behar izan ziren, ordena pixka bat jartzeko.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Jurldikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industriaketa
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99



◀ Urteetan zehar, arrasatearrok Gurea zinema aldameneko txabola erako honetan erosi izan ditugu hainbat filme ikusteko sarrerak. Gaztetxea itxi zenetik, itxura denez zikinkeriaz beteta omen zegoen. Osasun eta garbitasun argumentuak medio, Udalak bertanbehera botatzea erabaki zuen aurreko astean. Hor joan zaigu guztioi gere historia ren zati txiki bat.

◀ Luka zazpi urteko artzai txakur alemana da. Halako batean haurdun gelditu eta bederatzi txakurkume egin zituen. Gelditzen zaizkion hirurak salgai daude oraindik ere. Bat, bi edo hirurak erosi nahi dituenak, dei egin diezaiola Jose Luis Berezibari 79 15 21 telefonora.

Bilbo, Donostia eta Gasteizko Antena 3 irriatiak hamasei pertsonalitate bildu ditu, asteatero, arratsaldeko Setan, Boulevard kafetegitik zuzenean ematen duen *La tertulia vasca* egiteko. Gorordo, Barbera, Jon Azua, Garcia Egotxeaga, Antxon Urrusolo eta halakoekin batera, Iñaki Gorroño, LKAko inbertsiotarako zuzendariorde nagusi durangarra. El Correion horrela marraztu zuten. ▶



izen propioak

■ Iñaki Zeziaga, 34, Donostian jaiotako arrasatearra, UDAko entrenatzaile berria da, Alfonso Mollaren ordeza. Iñakik maestria ikasi zuen Arrasateko Eskolan eta Coprecin dihardu lanean. Mondrako jubeniletan eta regionalean jokatu zuen sei urtez eta erretiratu ostean, hiru urtez Mondrako gazteen entrenatzailea izan da.

■ Nestor Ganboa, 22, arrasatearra, Eskola Politekniko Kontseilu Sozialak anagrama berria aukeratzeko antolatutako lehiaketaren irabazlea. Nestorrek batxilergoa institutuan burutu zuen eta gaur egun injenerutza, mekanika adarrean, ikasketak burutzen ari da Eskola Politeknikoan.

■ Julian Balanzategi, 44, arrasatearra, ELAko Batzorde Nazionaleko kide berria. Julianek, Eskuela de Aprendizices-etan hiru urte egin ondoren, Unión Cerrajeran 22 urte egin zituen. Azken lau urteotan ELAko liberatu lanetan ari izan da. Tornero ikasketak burutu zituen.

PUB HAIZEA



**BRANKA
jatetxea**

Eguneko menua eta karta



**ARAMBURU
COTEMAR**
garrario agentzia



ATA Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

Eguraldi gorabeherak aztertzen

Ikerlaneko Metereologi Zentrua horretan ari

Azken hilabeteotako lehortearen eraginez, eguraldia igongailuetako solasaldi izatetik, egunkarietako lehen orriak betetzera pasatu da. Euririk egiten ez duela, iturrietan jadanik zenbait ordutan urik ez dugula, hego haize ikaragarria ari dela, etab., denok eguraldiaren inguruan hitz eta pitz dihardugu. Arrasaten Ikerlanen, metereologi zentrua dugu eta bertara jo dugu gai honen inguruko zenbait datu jaso ahal izatera.



Ikerlaneko plubiometroa

Energien ikerkuntzaren barne

Esan beharra dago, Ikerlanen eguraldi datuak, energia berriztagarrien inguruan egiten diharduten azterketa osatzeko jasotzen dituztela, Euskal Energi Erakundeak burutzen diharduen ikerketa programaren barruan. Ikerketa honetan, eguzkiaren irradiazio, haizearen indar eta nondik norakoak, hotzbero eta hezetasuna neurtzen dira. Programa hasi zenean, datuak metereologi zentruetatik, Igeldo, Gasteiz, Sondika eta Logroñotik jasotzen ziren. Hala ere, datu hauek eskuz jasotzen ziren eta estatistikak egiteko oso desegokiak zirenez, sare berria jarri zen martxan.

Sare handiago eta automatizatua

Sare berria, berez, bi sarez osatuta dago, datu orokorrak hartzekoa bat eta haizearen neurketak egiteko bestea. Lehen sarea Igeldo, Arrasate,

Lakua eta Briñas-en jarritako estazio automatikoez osatuta dago.

Bigarren sarea, haizearen norabidea neurtzeko antolatuta zen, baina haizeak indarrez jotzen duen lekue-tan, mendi eta itsasertzean, haranetan haize handirik ez da egoten eta. Sare hauek mendi tontorretan jarritako hamar estazioz osatuta dago, ETBren errepetidore dorreetan, hain zuzen. Garraio saila arduratu da esa-

Urtarrilean, 300 litro jasotzea normala bada, iaz 30 jaso ziren eta aurten 100

tazio berri hauek jartzeaz. Sare hauen bidez jasotako datuak Ikerlanek, energia berriztagarrien ikerkuntzan aplikatu ohi ditu. Hala ere, eguraldiak azken urteotan izan

duen bilakaera aztertzeko balio diezaguke.

Zenbait datu harrigarri

Arrasaten eta oro har Euskal Herrian, azken hamar urteotan egin duen euriaren garapena aztertzean, garbi agertzen zaigu azken bi urteak izan direla lehorrenak. Horrela, urtarrilean 300 litro jasotzea jotzen badugu, iaz 30 litro baino ez ziren jaso eta aurten 100. Edozein modutan ere, insolazioari buruzko datuak interesgarriagoak izan daitezke. Insolazioaz, urtean eguzki egunak zenbat izan diren neurtzen da, edota beste era batean azalduz, laino gabeko egunak zenbat izan diren neurtu da. 1930-1960 urte bitarteko eguzkikada datuak, 1964-1989 urte bitartekoekin alderatuz, desberdintasun nabariak ikusi ahal izango ditugu. Orain arte, zenbaiti, gaur egun lainorik gabeko egunak gero eta gehiago direla entzun ahal izan diogu. Ikerlanek egindako datu konparaketaren arabera, leku desberdinetan bilakaera desberdina izan da. Igeldo eta Sondikan esaterako, eguzkirik gabeko egunak gehitu egin dira, Gasteizen gutxitu eta Logroñon ez da desberdintasunik nabari. Beraz, itsasertzeari dagokionez behintzat, lainoak gehitu egin direla esan daiteke. Dena dela, intsolarizioari dagokion ikerketa honek, hogeitabost urte baino ez ditu, nahiko urte gutxi inolako ondoriorik ateratzeko.

Azken bi urteetan eguzkikada gehitu egin da toki guztietan, baina ez dago esaterik datu honek zeri erantzuten dion.

Bestalde, temperaturari buruzko

datuak ere jaso ahal izan ditugu Ikerlanen. Hotz beroan urte batetik bestera aldaketa handiak egon daitezke, baina batzuetan besteko datuak nahiko antzekoak izan ohi dira. Edonola ere, azken lau urteetako hotz bero datuak aurrekoekin alderatuz, udaberrikoa gradu bat inguru baxuagoa eta negukoak berriz, gradu bat inguru altuagoa izan dela esan daiteke. Orokorrean, azken urteak beroagoak izan dira.

Datu guzti hauek eskuartean izanik, Ikerlanen adierazi digutenez, ezin esan daiteke eguraldia aldatzen dabilenik, azken urteak beroagoak izan direla baino, honen arrazoiak argitu gabe.



Horrela ikus dezakegu gaur egun Landako urtegia

Beti egon izan dira eguraldi aldaketak

Rafa Bolinaga dugu Ikerlanen eguraldiari buruzko ikerketa hauek koordinatzen dituen, Météreologi Zentruaren arduraduna. Rafari azken aldian eguraldiak izan dituen aldaketan zergatia azal diezagula eskatu diogu, aldaketarik egon denik ezin esan daitekeela jaso dugularik erantzun gisa. Haren eritziz, eguraldia inoiz ez da estandarra izan, hau da, inoiz ez da negu garbi garbirik izan edota uda huts hutsik. Lurra, bere historian zehar, zenbait alditan berotu egin izan da eta beste zenbaitetan hoztu. Eguraldi aldaketa hauek gizona ez omen dute gaur beste inoiz arduratu. Jakina da, ur eskasiak gizona betidanik arduratu izan duela, bere eguneroko bizitzan, isurgai hau ezinbestekoa du eta. Baina gizonak

bere historian zehar garai ugarietan ezagutu ditu lehorteak.

Rafak argitzen duenez, gaur egungo gizarteak jasan duen bilakara eta ezagutu dituen aldaketak funtsezkoak dira eguraldirekiko ardura hau azaltzeko. Gizarteak izan duen garapenaren ondorioz, ur-konsumoa ikaragarri handitu da, etxe zein industrietan. Horrela, lehorteak suertatzen direnean, gaiak gehiago kezkatzen gaitu.

Aisialdiaren fenomenoak ere hor dago. Gaur egun, jendeak nahi dituen edo atsegin dituzten eginkizuetan eman ohi dute aisialdia eta ekintza hauek normalean urtaroekin dute zerikusirik. Neguan, eskiatzera joan ohi gara asko eta asko, edota mendira; udan berriz, hondartza inguruetara hurbiltzen gara. Urtaroekin

loturaestua duten ekintza hauek burutzeak, urtaroeak ere, gure nahiekin batera ari behar dutela pentsatzea garrantzitsua da. Neguek gogorrak, hotzak eta euritsuak izan behar dute, guk elurrarekin lotutako kirolak egin ahal izateko. Udak berriz, bero eta lehorrak nahi izango ditugu, eguzkiak disfrutatuta ahal izateko.

Eguraldia beraz, zoro samar historiaren beste garai batzuetan ere ari izan da eta azken bi urteak, lehorrak badira ere, ez omen dago jakiterik, aldaketen arrazoiak. Baliteke guk gizakiok lurriari egin dizkiogun aldaketen ondorioz suertatzea edota lurriaren historian zehar izan den zenbait aldaketaren antzera, urte hauetakoa ere arrazoi naturalen ondorioz izatea, gai honekin lotutako ikerketak ez dira oso zaharrak eta.

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

HAURTXOA
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

I K A T Z

ARGAZKI ETXEA

QSS

ZURE ARGAZKIAK ORDU 1ean

C	A	S	A
D	IKATZ	E	
F	O	T	O
G	R	A	
F	I	A	

Estibaliz etorbidea 2,
Tfnoa: 27 09 22
01004 GASTEIZ

Iturriotz 8,
Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Dendaraba merkatal
zentrua
Tfnoa: 28 98 11
GASTEIZ

**LAISTER
ZUREKIN
ARRASATEN**
ITURRIOTZ 8-770401

IKATZ-GASTEIZ
GABONETAN
SALNEURRI
BEREZIAK

IKATZ
ARGAZKI ETXEA

DENDARABA
MERKATAL ZENTRUA
TFNOA: 28 98 11

ESTIBALIZ ETORB. 2.
TFNOA: 27 09 22
01004 GASTEIZ

“Izatez, denok bisexualak gara”

M. K. Zubillagak ez du sexu harremanetan aurrerapenik ikusten

Sexuaz sarritan hitz egiten dela ezin ukatu. Mari Karmen Zubillaga, arrasatear sexologa, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako programa batean aritu da lanean bost urtetan, gazte eta emakumeei sexologi ikastaroak ematen. Gure sexu-harreman eta joeraz oso kexu agertzen den emakumea dugu, gizarteak bultzatzen duen sexu ereduaz desados.

— Arrasate Press: *Nola ikusten dituzu gure sexu jokabidea?*

— Mari Karmen: Desinformazio handia dago. Desinformazio horrek eraginda eta informazio jasotzeko erabiltzen den bide ezagunenaren ondorioz, pornografiaren ondorioz alegia, kalean nahiko giro berezia sortzen da, morbo hitzaz definienezakeen giroa.

— *Desinformazio hori nola gaindi genezake?*

— Sexualitatea normalizat hartuz eta heziketa gano-razkoa emanez. Orain arte, ukazioaren heziketa eman izan da. Sexualitatea normala eta baikorra den zerbait bezala hartzea funtsezkoa da. Une horretatik aurrera gauzak aldatzen hasiko dira. Gauzak aldatzen dabiltzan ideia dago, baina ideia hori guztiz faltsua da. Nik aintzinako mitoak aztertzen dihardut.

— *Zein mitoz ari zara hitz egiten?*

— Birjintasunaz, zakilaren tamainaz, oraindik ere tamainek garrantzi handia dute eta, sexualitatea eta sartzeari gauza bera direla ulertzeaz. Gaur eguneko sexu eredu heterosexuala da, izan daitekeen harreman sexual bakarra sartzeari da eta harreman horiek helburutzat umeak izatea dute. Eredu hori betetzeko hezten gaituzte. Mugak jartzen dituen ere-

dua da. Eredu hori jotzen da normalizat eta beste harreman motak anormalak izaten segitzen dute.

— *Zure eritziz hori dela eta hartzen dira homosexual edo lesbianen harremanak anormaltzat?*

— Gaur egun definizioak gehiengoak ematen ditu. Gehiengoa heterosexuala denez, heterosexualitatea da normala. Nik gehiengoak hartutako kontzeptuak ez ditut atsegin, gehiengoak ez duelako beti arrazoia. Hitlerren garaian ere, gehiengoa nazia zen, alabaina, horrek ez du esan nahi nazi izatea guztiz normala denik. Gehiengoak egiten duena gaintitzen duen edozer ondorioz anor-



Karmen Zubillaga

hor segitzen du. Gehienetan jasotako heziketak baldintzatuko du aukeratuko den bidea. Gaur egun, eredu guztiak heterosexualak dira, aita-amak ditugu, komunikabideek ere eredu hori ematen digute. Nire eritziz eredurik gabeko gizartea litzateke ideala. Eredu horiek eguneroko bizitzan nork berea jartzea, momentu eta pertsonaren arabera.

— *Aldatzeko zer egin beharko genuke?*

— Lehenengoz eta behin sexualitatea normalizat har-

doreagoak nabari dira.

— *Eskoletan ez al da ezer egiten?*

— Ezer gutxi. Eskoletan fisiologia sexuala irakasten da. Hori sexualitatearen alderdi txikia baino ez da. Gai horri buruzko informazioa edonon aurki daiteke. Katuari buztanetik nork heldu behar dion erabakitzeak dugu. Zenbaitzuren ustez, eskoletan egin behar da, beste batzuk berriz, gurasoek ere zer esanik badutela eta, ondorioz, eskola eta gurasoen arteko koordinazioa eman behar dela diote.

— *Antisorgailuek emakumearen sexualitatea askatu omen zuten. Ados al zaude?*

— Mugimendu feministak borroka garrantzitsua burutu zuen antisorgailuen legeztatena lortzeko. Horrekin emakumearen sexualitatea askatuko zela uste izan zen. Nire ustez, sexua eta ugalkuntza banatzea lortu da, ugalkuntzaren ardura emakumeena delako ideia indartu egin du. Antisorgailuen erabilerarekin, eredu sexuala aldatu egingo zela uste izan zen. Lortu zena berriz, kontrakoa izan da, eredu hori indartu egin da.

“Gaur eguneko sexu eredu heterosexuala oso mugatzailea da”

mala da. Nik jendea ez nuke heterosexuala, homosexual eta lesbiana taldeetan banatuko. Nire ustez ez dago desberdintasunik, denok bisexualak gara eta.

— *Zerk eragiten du orduan, batzuk harreman heterosexualak izatea eta beste batzuk homosexual edo lesbianak?*

— Gure baitan jokaera biak ditugu. Une batean bat gara dezakegu, baina besteak

tu eta gizakion alderdi garrantzitsu bat denez, eskoletan sexua hezi beharra duen zerbait bezala joratu. Eskoletan, pertsonaren beste zenbait alderdi hezten diren era berean, sexua ere hezi beharko litzateke, programazioetan sartuz. Badirudi gaur egun, sexualitatea une berezi batean hezi behar dela prebenitzeko batez ere. Atzerakada nabaria da; gizartean gero eta jarrera kontserba-



Hona hemen Judo taldeko zenbait kide

46 judoka kiroldegian

12 heldu eta 34 gazte; 10 neskak dira

Arrasateko Judo taldea orain hamar urte hasi zen lanean, eta gaur egun ere kiroldegiko gimnasioan dihardu. Guztira 46 judoka ari dira bertan: 12 heldu eta 34 gazte (hemetzi urtetik beherakoak).

46 horietatik, 25ek hamabost urte baino gutxiago dituzte, eta 10 neskak dira (4 helduak eta 6 gazteak).

Bi pertsona dira Judo taldea aurrera eramateaz arduratzen direnak: Bittor Gonzalez aukeratu berri duten lehendakaria, eta Julio Gallego entrenatzailea.

Astero-astero hiru egunetan ari izaten dira Musakolako kiroldegian (astelehen, astearte eta ostegunetan), eta judokak bi txandatan banatzen dira: 6etatik 7etara hamabost urtetik beherakoak, eta 8etatik 9,30etara beste guztiak.

1989arte, 160.000 ptako diru

laguntza jasotzen zuten AUKEAtik, San Juanetan Arrasaten lehiaketa antolatzeke. Baina azkenengo urtean kompetiziorik ez, eta xoxa lortzeko aukera galdu zuten.

Gauzak horrela, taldeak judokek ordaintzen duten kuotekin egin zuen aurrera; hamalau urtetik beherakoek 1.500 pta. hilabetera, eta gainontzeko guztiak 2.100.

Dena den, kontutan hartuko dute, berriz ere, Arrasaten lehiaketak antolatzeke posibilitatea (hori eginez gero, berriro lortuko bait lukete AUKEAren laguntza).

Bukatzeke, aipatu bi direla Judo taldearen helburuak etorkizun laburrerako: ahalik eta lehia gehienetan parte hartzea, eta kiroldegiko gimnasioa bere osotasunean erabiltzeko aukera eskuratzea (gaur egun zati txikia bakarrik dagokie eta).

Gure dominak

Otsailaren 3an eta 4ean, Gipuzkoako Judo Txapelketak antolatu ziren Donostiako Altzako kiroldegian. Han izan genituen hainbat arrasatear, eta emaitza ederrak lortu zituzten, bai horixe.

Hamabost urtetik beherakoan mailan, Gaizka Aranegik zilarrezko domina eskuratu zuen, 65 kilotik gorako kategorian. 60 kilotik beherakoan Jose Antonio Mertzanek brontzezko domina; eta Barazi Bengoak ere brontzezko domina.

Hirurek ere 13 urte dituzte.

Hamazazpi urtetik beherakoan mailan, ostera, laster hamasei beteko dituen Zigor Gartzia ere brontzezko domina lortu zuen, 57 kilotik beherakoan kategorian.

Lau judoka hauek bost urte daramatzate dagoeneko Julio Gallegorekin entrenatzen. Eta esan beharra dago lehiatzera iteten ziren bigarren aldia zela.

Ondo egindako lanaren ondorioz, emaitza ederrak ekarri dituzte Arrasatera. Zorionak!



**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

podiuma


Xabin Padilla,
kirol medikuntzaren puntan

Xabin Padilla eskoriatzarra, askoren ustetan Euskal Herriko fisiologo onenatarikoa dugu. Agian horrexegatik, goi mailako kirolariek in dihardu lanean gaur egun.

Kirolari horien artean, besteak beste, Martin Fiz arabarra dugu Xabinen ardurapean. Berotu egiten da Xabin Padilla Martinen 'affaire'ari buruz aritzerakoan. "Nik ez dakit zergatik erasotzen duen prentsak Martin, gorabehera handiak dituela esanez. Mundu guztiak ditu gorabeherak. Lasarten, adibidez, ikaragarritzko karrera egin, eta hurrengo eguneko egunkarrietan hirugarren postua ospatu beharrean, bere kontra aritu ziren: ederto hasi, baina erre egiten dela, ez duela denboraldia ondo prestatzen, etab. Niri min eman zidan horrek, gezurra delako. Joan zen urtean, Espainiako ligan bigarren gelditu zen Alejandro Gomezen ostean; eta pentsa, liga batean urte osoko lana kontatzen da, ez egun edo bolada batekoa bakarrik. Martin puntako atleta da, 26 urte ditu, eta zorte pixka batekin laster ixilduko ditu aho gaizto horiek".

Xabin gaztetatik izan da kirol zaletua. "Bai, garai haietan ere, hemezortzi hemeretzi urtekin, asko irteten nuen mendira. Futbolearen ere egin nituen nire saiotxoak..."

Medikuntza ikasketak amaitu zituenean, St. Etiennean joan zen kirol-medikuntzako ikasketak sendotzera. "Aukera polita izan nuen



han, batez ere laborategietan ikerketak egiteko. Era berean, goi-goi mailako kirolariek in lan egin nuen: Munduko Maratoi Kopa irabazi zuen Djibouti-ko taldea, Miko-Mercier txirrindulari taldea (gero Renault izan zena), etab. Beraien dietak, entrenamendu-motak, eta antzekoak ikasteko aukera aberasgarria".

Beste toki batzuetan hainbeste zaintzen den alorra, kirol-medikuntza, Euskal Herrian oraindik ere nahiko ahaztua omen dago. "Orain bi urte, Roman Balanzategik Lagun Aroko medikuak eta nik proiektu bat aurkeztu genion Arrasateko Udalari, Zentruaren eta Anbulategiaren instalazioak aprobetxatuz, kirol-medikuntza zerbitzu bat sortzeko bailara guztiarentzat. Baina Udalak ez zuen kasu gehiegirik egin. Kapaz dira gero hauteskunde garaian presaren presaz ibiltzeko".

Kapazak dira, Xabin. Dena den, egunen batean proiektua burutzen bada, gustoz gordeko genuke lekua zure maixutasunarentzat

■ **Saskian asmatu**

A-2ko lehenengo neurketan, Arrasate Kirolakek 99-83 irabazi zion Atletiko SS-i, Musakolan.

■ **Mondrak bai**

Anaitasuna taldea etorri zen igandean Atxabalpera, eta 3-0 galdu Mondraren aurka. Golak Gordobilek, Arangurennek eta Aranburuzabalak.

■ **Rugbyan galdu**

Atsedendian 11-13 irabazten joan, baina azkenean Iturripen Arrasate Kirolakek 11, Eibarrek 13.

■ **Pena eskubaloian**


Epaiketa benetan kaxkarraren ondorioz 20-19 galdu bait zuen Arrasate Kirolakek, Bilbon, Loiola taldearen aurka.

■ **Gay selekziora**

Asteburuan Parisera joango da Gay, Espainiako selekzio seniorraren 4x200 m.ko erreleboak korritzera.

■ **Iñaki Zeziaga**

Entrenatzaile berriaz garaipen ziu-rra. Hala erakutsi zuen Iñakik ere. Pasa zen astean UDA zuzentzen hasi, eta igandean 1-0 irabazi zioten atxabaltarrek Aloña Mendiri.



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda !

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

The Godfathers in concert

(edo kitarren maisutza)

Ez da auzi samurra *Godfathers*-en musika definitzea: oinarrizko rock'n'roll-a baina arraroa, melodikoa eta aldi berean bortitza, ezta zenbaitzutan, indartsua gehienetan. Ez da, inolaz ere, izugarriko jendetza erakartzen duen talde horietakoa, baina ez zitzairen potentziarik falta izan aita-pontekoei kiroldegian bildutako jarraitzaileak pozik uzteko.

Ordubeteko emanaldian euren diskografiari erreposoa eman zioten, zehaztasunez; zehaztasun gehiegiz, behar bada, kitar-kolpeak ziurrak bait ziren, inprobisazio edo bitxikerientzat tarterik utzi gabe. Hori bai, kitarrek ohorezko aipamena merezi izan zuten. Mike Gibson-en atzean, kitarra bilduma polita: Gibson, Telecaster, Stratocaster eta 12 sokadun Yamaha. Berrietako bakoitza oso berezia, oso personala, baina jakin izan zuen, alajaina, bakoitzari bere soinua ateratzen, bakoitza zegokion abestian eta zego-



kion estiloan jotzen. Eta beste kitarjole berriak ederki bete du Kris Dollimore-k utzitako lekua, eta ederki erakutsi zigun, baita ere, nola kitarra bati probetxua atera (hori indarra!!). Eta koroak, koroen lilura,...Bi hitzetan: Emanaldi bikaina, trinkoa, hurrengo batean errepikatzeke modukoa. Oraingoz udaberrirako diska berria iragarri dute. Ea zer dakarkigun honek!

Aurretik, telonero gisa, *La Perrera* talde donostiar gaztea aritu zen, eta azpimarratu behar telonero gisa ari-

tzearena, batez ere baldintza makalengatik (ohitura tristea holako kontzertuetan). Ez ziren batere ondo portatu aita-pontekoak beraiekin: ezin izan zuten Lakuntzan jo, eta Arrasaten, ordu erdi doi-doi eta baldintza kaskarretan (rokanrolaren alde iluna). Musikari dagokionez, dagoen Rock an roll-ik ilun, arraro, zaratatsu, psikodeliko, bortitz, irensgaitzena egiten dute, baina jendetza berotzea lortu zuten, hala nola, nire bihotza ere bai.

Patxi Montero

SOKOIA

Zeharkale estalia Arrasate



URONDO elektrizitatea.

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....
Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

KAKAX

KOKOX

eta

KIRRIKI



Otsailaren 10ean
Amaia antzokian
Arratsaldeko 6etan
Sarrera 200 pta.

Arrasateko Udaleko Kultura Batzordea



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kubxa 95. Telefax: 798097

Euskara/beste hizkuntza batzuren eragina

Gaur arte euskarari ahaide genetiko gargaririk eta duda gabekorik aurkitu ez bazaio ere, bai, ordea, izenda daitezke auzotasunezko harreman eraginkorrak, hau da: ez dakigu zein familiatakoa den, baina bai zeintzuren eragina duen.

Gerhard Rohlfs-en ustez, euskara da latinetik ez datorren europar hizkuntzetan latinak gehien eragin diona, baina euskararen sena, nortasuna, indar bizia ahuldu barik. Eta ez bakarrik hitzen aldetik prestamenak emanda, beste zenbait arlotan ere bada erromatar eraginik.

Gutxiago, baina zeltar hizkuntzen eta arabieraren eraginik ere bada. Arabieraren eragina, erderaren bitartez heldu zaigu, adib: *alkondara* (alcandor), *atorra* (adorra).

Guzti honetatik ateratzen den ondorioa zera da: Euskalerrria ez dela aislamendu osoan bizi izan. Joandako mendeetan herri honi "*Lekore lurra*" edo "*Tierra apartada*" deitu bazitzaion ere, euskaldunek inguruetako herriekin harremanak izan dituztela.

Neologismoen aldeko jarrera

Neologismoen aldeko jarrera izan duen bakarra Sabino Arana izan ez bada ere, Arana eta bere eskola izan dira jarrera honen bultzatzailerik gogorrenak. Jarrera hau honetan datza: erdal kutsua zuten hitzak baztertu eta hitz berria sortzea inolako hizkuntz erizpiderik gabe, adibidez:

Neologismoa	erderaz	euskaraz (latinetik hartutakoak dira)
<i>ingurti</i>	<i>folleto</i>	<i>papertxo</i>
<i>ikurton</i>	<i>sacramento</i>	<i>sakramentu</i>
<i>txadon</i>	<i>iglesia</i>	<i>eliza</i>

XIX. mendearen bukaera aldera, eta lehen nazionalismoaren etnozentrismoaren eraginez, euskal nortasuna eta euskara kutsatzen ari den ustea dute garai hartako nazionalistek. Euskalerrria "Tierra apartada" ez izatearen lotsa dira. eta "atzerapen" prozesu honen eragilerik handienak hizkuntza greko-latinoak izanik, latin edo erdal kutsuko hitz guztiak baztertu nahi izan zituzten euskaratik.

Jarrera hau oso arriskugarria zen. Euskara, erdal kutsuko hitz guztiak kenduz gero, biluzik geratuko zatekeen, defentsarik gabe, eta ordurarte egindako literatura apurra baliorik gabe.

Bestalde, euskara hiztunak galtzen ari zela kontutan hartzen badugu, euskarari inolako mesederik egingo ez zion beste oztopo bat izango zen hori.

Sabinok proposatzen zuen hizkuntzaren adibide gisa berak moldatutako "Aita Gurea" dugu: "*Gure aita Goikoa zeure izena donetsi bedi zeure ala bélligu, zeure gurea egin bedi donokian lez ludian be. Emoguzu gaur be geurentzako ogi egunekoa, azketsi gewi geure zorra geuk be geure zordunena dazketsegun lez ta ziltzaldian ez gagizuz utzi*".

Atalataikoan

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Ingurugiroko teknikaria kontratatu behar da

Ez da beharrezkoa espezialista izatea:

Zera eskatzen da:

- Gestio lanpostuetan esperientzia.
- Erdi mailako edo goi mailako titulazioa.

Zera eskaintzen da:

- Taldeko lana.
- Soldata aukeratuarekin finkatuko da.

Interesatuak, bere eskaera eta "curriculum" a otsailaren 16ko eguerdiko 3ak baino lehen Arrasateko Arrasate Pasealekua, 5ean dagoen Udal Elkartearen egoitzan aurkeztu beharko dute.

Tfnoa: 79 33 89/99.

Arrasaten, 1990eko otsailaren 1ean.

Lehendakaria

Kolesterola eta bihotza

Pertsona asko dira garai honetan, Gabon jaiak igaro ondoren, kolesterol-kantitatea gora joan zaielako kezkatuak daudenak.

Kolesterola bere neurrian mantentzea komeni dela, ia denok dakigun gauza da, eta gora egiten duenean, arriskua handiagotu egiten dela ere argi eta garbi dago.

Baina orain dela gutxi Estatu Batuetan, janaria, kolesterolaren egoera, arterioesclerosis sortzeko arriskua eta heriotzaren zergatiak aztertzeko milaka pertsona kontrolatu zuten; eta lan honetan agertzen denez, kolesterola neurri gain izatea baino janariekin hartzen diren animalia gantzak arriskutsuagoak direla agertzen da, nahiz eta kolesterol neurria ez igo gehiegi.

Argi esanda, gantzak eta kolesterola ugari duten janariak neurririk gabe jatea izango da benetan arris-

kutsua. Janari hauen kontsumoa mugatzea eta gutxitzea beharrezko agertzen da, baina askotan ez da hau erreza izaten, koipe hauek janariei goxotasun handia ematen dietelako zaporea gehituz; eta nork ez du gogoko mahaian eseri eta janaz gozatzeta.

Duela aste parte bat, janari ba-

tzuen koipe-kantitatea erakusten zuen zerrenda argitaratu genuen atal honetan. Gaurkoan, eta gai honi amaiera emateko, hemen doakizue, janari horiek daramaten kolesterola. Eta gogoratu: bihotza eta zain gorriak gazte mantentzeko, animalia gantzen kopurua gutxitzea komeni da, nahiz eta kolesterola ez igo gehiegi.

Kolesterol-kantitatea miligramotan, janarien 100 gramoko

Animalia muinak	1.825	Arraultzeak	1.400
Arrain arraultzeak	1.400	Barrenkiak	700
Bakailo-gibelaren olioak	490	Haragi-gantzak	300
Gurinak	240	Itsaskiak	230
Arkumeak	140	Esne gainak	120
Txahalkiak	100	Hestekiak	90
Sardina freskoak	90	Oilaskoak	85
Txokolateak	68	Almendrak	55
Arrainak orokorki	40	Esne osoak	10
Esne gaingabetuak	3		

Eukeni Olabarrieta eta Arantxa Lizaso

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Zabor bilketa zerbitzurako arduraduna kontratatu behar da

Arduradun honen eginbeharra honako hau izango da: Zerbitzuaren Zuzendariaren menpean, bilketaren antolatzea eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak eratu eta koordinatzea, zerbitzu ona ematen arduratuz eta eguneroko funtzionamenduan sor daitezkeen arazoak konponduz.

Baldintzak:

- Titulazioa: Bigarren mailako lanbide-heziketa, arlo mekanikoa edo elektrikoa.
- Gutxienez urtebeteko aginte esperientzia.

Urteko soldata gordina 2.187.192 pta.

Instantziak aurkezteko epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun.

Oinarriak Deba Garaiko Udal Elkartearen daude. Arrasate Pasealekua 5, Arrasate.

Tfnoa: 79 33 89/99.

Arrasaten, 1990eko otsailaren 1ean.

Lehendakaria

Aiako Harriak eta Astigarragako sagardotegiak

Lehenengo, eta aipatu gabe geraezinezko baldintza, sagardotegian egin beharreko bazkaria genuen, hori bai aurretik "Aiako Harrietako inguruak ezagutu behar genituen.

Besaide M. Elkarteak eskaini zigun aukera honetara 80ren bat lagun inguratu ginen, orain dela urte batzuk eta aurrez antolatu gabe egon arren, eguraldi txarraren ondorioz, sagardotegi bat eskalatzeko rokodromo bihurtu zen aldi hura berriro ere gogoratzeko asmoz.

Domeka hartan goiz-goiz irten ginen autobusez eta "Elurretxe"-raino hurbildu ginen, bertatik oinez



bidaia jarraitzeko. Hasierako aldapa "gogor xamar" batzuk gainditu ondoren "tontorrez tontor" aritu ginen, Puztako gaina, Irumugarrieta, Txurumuru eta Erroilbide gailurrak egin ez eta handik begiztatu zitekeen paisaia mirestuz; aurrean geneuzkan

Irun, Hondarribia, Oiartzun eta Donostia eta atzean Iparraldea eta Pirinioak. Eguraldi zoragarria.

Beherakoan Aritxulegin bi taldetan banatu ginen, Oiartzun herriko plazara heltzeko asmoz. Hirurak inguruan denok geunden autobusetan prest Astigarragan itxaroten geneuzkan kupelak zabaltzeko. Petritegi sagardotegian izan ginen eta bai ondo bete ere hasieran komentaturiko baldin-

tza. Sagardoa blai-blai eta kantuak eta bertsoak farra-farra. Giro ezin hobean sagardotegia utzi genuen, hurrengo, eta denboraldia amaitu baino lehen, horrelako aukera noiz izango dugun esperoan gaudela.

Hankamotz

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Deba Garaiko Udal Elkarteak, laster hasiko diren lanbide hastapen ikastaroetarako ondorengo pertsonak kontratatu nahi ditu, aurrez urte beterako.

1. • Kanpo Harremanetarako Irakasle Sozio-Laborala,

aipatutako ikastaroak gainbegiratzeko.

Betebeharrak

— Erdi mailako titulua (Gizarte Zientzien arloan)

2. • 3 Monitore.

Ondorengo arloetan ikastaroak emateko:

— Sukaldaritza

— Jantzigintza

— Laguntza Pertsonala

Betebeharrak

— Eskola-agiria


Interesatuak, instantzia delakoa otsailaren 16an hirurak baino lehen Arrasate Pasealekua 5ean dagoen Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute.

Oinarriak aipatutako egoitzan, nahi duenarentzat, daude.

Arrasaten, 1990eko otsailaren 2an

Lehendakaria.

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruaren Elkarteke partaide bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Aste gazte

JAKINI!

Aste Santutan Lancaster-ko gazte talde bat Arrasatera datorri- gu. BBC-k Arrasateko kooperatibei buruz egindako bideoa ikusi omen zuten, eta etortzera animatu ziren. Bidaltako eskutitzan diotenez, he- mengo jendea eta inguruak ezagu- tu guran dabilta, bai eta hizkuntza praktikatu guran ere. Euskaraz jakingo ote?

Bekak

* 90-91 Ikasturtean Finlandian Ikasketak egiteko bekak. Iraupena: 3 hilebetetatik 18ra. Hilean 2.300 marco finlandiarrak. Epea: 1.990.eko mar- txoaren 1a.

* 1.990.eko Udan Hizkuntza eta Kultura irlandarrei buruz ikastaroak egiteko bekak. Ingelesa ondo ezagu- tzen duten litzentziatuak eta karrera- ren azken kursoetako ikasleak. Irau- pena: gehienez 8 hilabete. Epea: 1.990.eko martxoaren 1a.

* 90-91 Ikasturtean Irlandan iker- tzeko eta ikasteko bekak. Ingelesa ondo ezagutzen duten lizentziatuak edo karreraren azken kursoetako ikasleak. Hilean 315 libera irlandar, doako matrikula eta bidai laguntza.



Iraupena: Gehienez 8 hilabete, 1.990.eko urritik 1.991.eko ekainerar- te.

Lehiaketak

— Argazki-lehiaketa eta erakus- keta (Eibar). "Emakumea eta lana" le- mapean. Tamainoa: 30x40 zm. ge- hienbatez, atzekaldean 30x40ko kartoia edo kartulina jarriz. Epea: martxoaren 15ean.

— Komiki Lehiaketa. (Bilbon). "Maila berean ezberdin. Emakumeen aukera eta eskubideen berdintasunari buruzko lehena".

Saria: 150.000 pza. Kolorez edota zuri-beltzez. Neurria: 18x24 zm. Eus- karaz nahiz erdaraz. Epea: otsailaren 22an.

— Ipuin Lehiaketa (Sevilla). Gai librea. Gutxienez 3 orrikoa eta gehie- nez 8 orri. Epea: martxoaren 9an.

— Eskola-lehiaketa "Principe de Asturias". 6 urtetik-10 urtera, eta 11- 14 urte bitartekoak.

Edozein lan mota: komikia, esku- lana...

Lema: "15 urte errege batentzat". Epea: martxoaren 15ean.

— "Francisco Giner de los Rios" VIII Saria", Ikasle eta Irakasleent- zako. 1.Saria: 2.000.000 pztakoa. 2. Saria: 1.000.000 pta.koa. 3. Saria: 500.000 pta.

Epea: martxoaren 31. (BOE azaroaren 24ean).

Bidaiak

1.990-eko Ski kanpaina (AUKEA- Besaide)

- Alpes Tignes - Vall d' Isere Aste Santutan.

- Frantziako Pirineoa. Aste San- tutan.

- Formigal. Asteburuak. (Apirilar- te).

Informazioa: Besaiden. Arratsalde- ko 6.30-7.30.

Tfnoa: 798474.

- TIVE: 26 urtetik beherako gazteak edo 30 urte, talde edo ikasleak, aukera ona eta merkea bidaiak egiteko.

Txartelak

— Antzerkide: Donostian antolatu- tako antzerkien informazioa jasotzeko, erreserbak telefonoz egiteko...

— Ostatukide: Oporrak albergee- tan igarotzeko. Indibiduala edo gazte taldeentzako. 26 urte beherakoak: 500 pza. 26 urte gorakoak: 1.000 pza.

Taldeak: 20 pertsoana eta 2 moni- tore. (2.000 pta).

— INTER-RAIL: Europa osotik zehar hilabetez trenetaz bidaiatzeko.

Informazioa gehiago: Gazteria Batzordea Tfnoa:79 09 00

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

ETXEBIZITZAK

- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde hornitua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- Musakolan etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 36 93. Ramón.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Blkoteak errentan hartzeko tellatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76

LANA

- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu 79 81 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 97 52 (deitu goizetan, larunbat eta igandetan)
- Ikasle arduratsuak bulego edo antzekotan lan egingo luke. Tfnoa: 79 39 84 (arratsaldeko 6etatik 7etara)
- Edozein lan-mota egiteko prest: garbiketa, tabernak, dendak... Tfnoa: 79 4179 (Amaia)
- Disko-pub-kafetegietan esperientziadun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko hurrel klase partikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- IEE 2. kurtzoko neskak matematika eta natur zientzietako klase partikularrak behar ditu. Tfnoa: 79 39 11
- Emakune euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo litzuzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Behar dira: sukaldari laguntzailerak (barra zerbitzuan lanean dakiela) eta sukaldaria. Tfnoa: 79 17 86. Eguerdiko 2etatik 4etara eta gaueko 9etatik aurrera.

SALEROSKETAK

- Ebro M-140 kamiota SS-Y salgai txartela nazionalarekin. Interesatuek dei 81 01 61 Tfnoa.
- Saltzeko dauzkat Roland baxu amplifikadorea, Ovation baxua, Aquier baxua, Fender kitarra, Shure SM58 mikrofonoa eta foko bi, mila watiokoa bakoitza. Deitu gaueko hamarretan. Ion 79 38 96
- Sonab markako amplifikadore-digitala salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Akai markako pletina salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mm-koa. Tfnoa: 79 45 39
- Bizikletak salgai. Akimoto GAC 15.000 pta. Luna GAC 20.000 pta. Berri berriak. Dei ezazue bulego orduetan (94) 658 20 12 Marian.
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi. 8etatik aurrera, 79 99 82
- Commodore 64 salgai. Berria. Assembler Tutor eta guzti. 25.000 pta. Tfnoa: 79 81 14. 9etatik aurrera.
- Janet markako haur-kotxea salgai egoera onean. Eguzkitakoa eta euritakoa doan. Dei egin 79 91 77 tfnora.
- 4 urteko 10 behi saltzen ditut. Ernai daude. Mendikoak. Amutxastegi Zaharra baserria. Basalgo auzoa. Bergara
- Vespa-200 motorra salgai. Deitu 79 24 66 tfnora. Aitor

DENETARIK

- Botatzeko duzun ofizina mahal hori gustora jasoko nuke zure etxera joanda. Dei 79 21 35 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Juliana Ramos Zarza
Otsailaren 1ean. 87 urte

Adoracion Lugea Ayerra
Otsailaren 1ean. 49 urte

Petra Urzelai Unzueta
Otsailaren 2an. 87 urte

Victorio Martinez Martinez
Otsailaren 3an. 86 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate paselekua 3 bis, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

JOXEPA ARREGI; Mondraueko preso historiko baten ama (I)



Zabarte, Arregi familixie. Ezkerrekeue Jesus Mari.

Zabarte mutikotan

Mendixetan ikurriñak kolokau, paskiñek ipini hormetan eta halakueta hamalau bat urtekin ekingo zan. Neugana etorri eta, halaxe esaten eusten: "zuk ama errezau banoie ta". Nik banekixen baiñe, zer eifi bihe nutzen nik, berez urteten dauenei.

Ni neu ez naz sekule politikue izen, eta ezta izengo gure etxien politika asuntuen eta berba eifi zalako. Nundik atara auen eztañ, baiñe, ama moruen "a espada limpia" defendituten dot. Ni gogorra naz, baiñe, semie defendirutearren, eh!

Bestekaldera oif dala hogeit urte

Ointxe pasauko zien hogeit urte. Hemendik Bilbora juen zan eta handik bestekaldera. Bestekaldien ezkondu zan eta han bizi izen zien. Lehenengo aldiz Naparruko mugan harrapau auen. Jaleue egon zan han eta "Mamarru" eta bixek harrapau eta Angulen konfinau zittuen.

Kartzelara lehenengo aldiz

Bilbon eridute harrapau auen, Mitxelenakin batera. Berak eskuen

eta hankan tirue eta bestie pulmoien emunde oso grabe. Hiru egun eifi gittuen bisittetako permisue konsegiruten.

Hospittelien jueten gitzenien askotan topetan gittuen pilloxik, esku eta haka ogera lotute, oso egoera txarrien eta bestiok aurrien. Handik gero Basauriko kartzelara eruen zittuen, ezelako be erropaik barik. Hara bixittetan juen nitzenien, bi muletakin eta ijitto batek emundeko arropakin urten euzten. Sekule etxat ahaztuko ha egoerie, hain zan triste!

Santanderren lehenengo juizue

Gero Santanderren juizue eifi eutzien bai. Goixeko hamaiketan juizue eifi eta gabeko beratzirek arte egon gitzen sententziai begira. Naparruen Ugarte raptau auieña eta "pena de muerte" eskaketan eutzien. Baietz eta ezetz azkenien hogetamaike urteko kartzelie. Handik Basaurire barrero eta Burgosera hurrengo. Burgosen "intento de fuga" euki eta pto. de Santamariara. Han pistolie harrapau eutzien. Zeifiek pasautzen ez auen esaten eta hamaike hillebete inkomunikate. Ez periodikoik, ez kartaik, ez bisittaik, ezebez, eskuitturreko erlojue be kendute. Bakar-bakarrrik falangeko rebistak emuten eutzien.

Gero ixte libretako auela, kolilla bat topautzien zeldan eta esateko nok emuntzen, librauko zala eta ezetz eta ezetz. Direktoriek esan euzkun:

"Como es un hombre tan recto tan recto, que no quiero que otro se pierda por él, pues tiene que hacer otro mes de castigo".

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Batista Kojua jan-eranian, parrandan eta umore onian aurrenengua ei zan. Ez ei zan Eibarren katuik pe ezagutzen ez ebanik. Saltsia nun Batista Kojua han.


Haratuzte batzuetan mozorrotzia nahi ei eban baiña inork ez ezagutzeko moduan eta hori etzan gauza erreza. Izan be haren herrena bera bezin barregarrixa zan eta haura etzeuan disimulatzerik.

Zela jantzi jentia ez igartzeko? Ondo asko zekixen berak nahiz tximifto jantzi nahiz odoloste jantzi kalera urten orduko ezagutuko ebena. Buruai bueltak zebilela idea argi bat etorri jakon: Untza-ko plazara Batista Kojuan papeladia egiñaz agertu.

Pentsau eta eifi. Arpegixan zirrimarra batzuk pinttauta urten zan kalera eta herri guztia aho zabalik geldittu ei zan. Koko jantzittako harek Batista Kojuan taju demasa ei eukan. Arpegixan eta herrenkako ibilleria hain igualak ei euzkan eze erozeifiek pentsau ei zeikian bera zala. Erozein zala be, ez ei eukan meritu makala Batista Kojuan papela hain ederto eittiak.

Disfrazauta zebilen Batista Kojua danen barregarri izan bazan be, ez ei eban barre gutxi egin Batista Kojuak berak Haratuzte haretan.

Juan Martin Elexpuru



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11



Fotokoplak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Mondragoeko Musika Banda. 1899

Duela astebete batzuk, Arrasate Pressen zenbakian Sebero eta Benigno Altube dultzaineroak atera genituen orrialde honetan, Cristobal Bediaren konpainian. Orduan ez genekien non zegoen aterata argazki hura. Gaur honako hau ikusi ondoren, badakigu: Solaren lorategiko eskilaretan.

1899ko argazki honetan Pantaleon Urionabarrenetxeak zuzentzen zuen Mondragoeko musika banda duzue.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Sebero Altube, Benigno Altube, Jose M^a Ezkurra, Isidoro Ezkurra, Florenzio Ezkurra, Jose M^a Zarraoa, Eugenio Urdapilleta, Dionisio Arkauz, Nikolas Arregi,

Pantaleon Urionabarrenetxea (zuzendaria), Daniel Arkauz, Agustin Aranburu, Jose Endeiza, Gregorio Azkoaga, Nazario Madinabeitia, Pedro Aranbarri, Frantzisko Arregi, Ignacio Juldain, Antonio Axpe, Segundo Leibar, Dimas Madina.

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuk
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Merkatal operazioak	Iratze	Gizon izena	Duin denaren nolakotasun	Anaiak, hitz elkar.
Basa animalia				
Lore zaintzaile				
Apezen laguntzailea				
Letra grekoa		Bizk. Une egoki		
Joan zaitez		Kontsonante errepikatua		
			Zakurra	
			Intsektu mota	Txori bidaiariak
Sufrea	(Herr.) Zer		(errep.) Euli ezaguna	
Eguzki	Imajina		Ipar. Izu	
		Likite		
		Bokala		
Etzanarazia				
Bururatu				
		12		Roentgen
		India		Interjekzio
Diosala hitza			Joaki naiz	
Ogi egile			Kontsonantea	
			Da, hiri	

Hitz gezidunak

Soluzioak

	S	L	G	L	D
B	A	S	A	K	A
L	O	R	A	Z	A
S	E	R	O	R	A
R	O	Z	E	R	E
Z	O	A	Z	O	R
S	Z	E	T	S	E
E	K	I	L	I	Z
E	R	A	T	Z	A
O	T	U	X	I	I
A	D	I	O	N	O
O	K	I	N	Z	A

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERANA AHOLKULARITZA

Orotarako aseguruak

Kontzezlño kalea 4, etxabea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Gaua xurgatu ondoren
eta argiarekin batera
erdi hilda erdi lo
mundua gelditzen da.

Presarik gabeko aidean
murgilduz, dantzatzuz
hitz baino gehiago
begiez, gorputzez

Kale hutsak.

Katedraleko kantak.

Eta Haginapean groovy

Erlojuak berriro jo arte.

Orduan eseri behar
indarra eskuratzeko
zugandik URRIN
bizi ahal izteko.

Izengabe

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



LOREA

**Oinetakoak
eta poltsak**

**Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ**

■ **Euskal kantagintza:** Euskal musikaren joan-etorriak, goraberrak eta berrikuntzak, musika, elkarrizketak eta azken orduko albisteen bitartez emanak. Horixe litzateke "Iturri onetik" programaren barruan, ostegun gauetan -9:00etan- igande eguerdiz Julian Belokik aurkezten duen irratsaioaren helburua. Nik igandean entzun nuen, etxeko garbiketak egiten nituen bitartean, eta egia esan labur egin zitzaidan. Bariatua aurkitu nuen Oñatiko "Hor Konpon" taldea, Tapia eta Leturia, Jon Bergaretxe, Anje Duhalde, M-ak, etab. eta atsegina. Seguru ez banago ere, ez dut uste euskal musikaz era sistematikoz informatzeko horrelako saiorik inoiz eman denik eta beharrezkoa iruditzen zait, euskal musika oso fenomeno heterogeneoa dela jakinda ere.

■ **Telebista kamarak Madrilgo Parlamentuan:** Joan den astean sail honetan idatzitakoari jarraituz, argi gelditu zen otsailaren 1ean Madrilgo gobernuako partiduagatik izan balitz, ez genukeela Alfonso Guerra Gorteetan azaldu zeneko plenoa zuzenean ikusteko paradarik izango. TVEk eta Andaluziako Canal Sur-ek -biak PSOEren kontrolpean- eskaini zuzenean.

Hala ere, Euskadin, Galizian, Catalunyan, Valentzian eta Madrilen ikusi ahal izan zen, kanale autonomiko eta oraingoz dabilen pribatuari esker.

Hemen ETBren bigarren kanalean eman zen, Maribel Aizamaren ahotsarekin. Hau ikusi genituenek iradokizun gehiegirik behar ez zuen arren. Ondo, hala ere.

Beste behin, agerian gelditu zen paraje hauetan dagoen telebistarik pribatuena geure diruarekin ere finantzatzen dugun TVE dela, unean uneko gobernuaren jostailua delako. Ordu onean joan zen pikutara monopolio hori!.

■ **Lasarte eta Getxo:** Azken bi asteburu hauetan ondo baino hobeto irten zaizkio gauzak ETBri progamazioan, bereziki zuzenean emandako Lasarteko krossa eta Getxok jokaturako Ziklo Kross Munduko Txapelketa.

Lasarten oso lasterketa polita ikusi genuen. Zein karrera ona egin zuen Martin Fizek, keniatar eta etiopiarrekin batera, hori bai. Besaulkitik altxatu eta arabarrari laguntzeko gogoak ematen zituen. Getxon ere proba ederrak ikusi genituen. Irabazleei elkarrizketa egiteko orduan izandako arazoak gorabehera, erretransmisioa ona izan zen.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Kirolak:** aukera zabala ere asteburu honetan. ostiralean, gaueko 11,55etan *Super Match* saioa. Larunbatean, 15,20etan NBAko saskibaloia neurtuta (New York-Boston), eta 17,40etan eskubaloia. Igandean, oster, 12,25etan Zomozako krossa, eta 18,10etan ACB ligako saskibaloia partidua.

■ **Joxemiel Barandiaran:** Larunbatean, Gaueko 21,15etan hasita, ordubeteko saio berezia eskainiko zaio Ataungo apaiz ospetsuari. Ehun urte bete betriak dituzte, On Joxemieli egindako elkarrizketa zatiak, erreportai laburrak, ondo ezagutzen dutenen eritziak, etab. jasoko dira merezitako omenalditxo honetan.

■ **Mayerling:** Terence Youngeren filmea, asteazkenean, 9etan. Antzesleak Omar Shariff, Catherine Deneuve, James Mason eta Ava Gardner. Rudolph, Franz-Joseph enperadorearen semea da, Austria-Hungariar erreinuaren oinordekoa. Printzea ez dago batere ados bere aitaren politikarekin; gainera maite ez duen Stephanie printzesarekin ezkontzera behartua aurkitzen da...

bideoak



Uren konkista

Bizia lurrean bildumako bostgarren atalean, arrainak ditugu aztergai.

Arrainak bilioika kontatu daitezke, 30.000 espezie inguru bait dago. Mundu aberatsa da gainera; elektrizitatea sortu, ozeanoko sakontasun beltzetan, sosa beroko lakuetan eta Antartikoko izotz azpian bizirik iraun dezakete, ur-jauzietan gora migratu ere...

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Aitor Sarasua bertsolari aretxabaletarra dugu Berriak albistegia aurkezteko dugun laugarren laguna. 22 urte ditu, eta Injinerutza ikasten ari da Eskola Politeknikoan. Egun erdiz Aretxabaletako *Inemo* enpresan lanean ibili arren, topatu du denbora apur bat noizbehinka ATBra hurbildu eta albistek kamara aurrean irakurtzeko.



Elizarekin topo egin dugunez gero, ez dugu aipatu barik utziko ATBren platoon bertan dagoen aitortegi edo konfesionarixue. Jakin badakizue platoon lehengo Ospitale Zaharreko kaperan dagoela. Bat ere ikutu barik utzi dugun oroigarria hauxe izanda, aitortegia. Akaso aurrerantzean programa baten dekoratua sar liteke. Auskalo!

Haize gogorak izan ditugun egun eta gau hauetan Ospitale Zaharreko leihoak zoratu beharrean ibili dira. Eguneko informazio saioa grabatu ondoren, kalera zihozten iluntze zoro horietako han batean, bateren bat zebilela erreparatu, joan eta *fray Rufino*, Bolibarko frantziskotarra ATBko bulegoetako leihoak ixten, zer gerta ere.



Otalora 2, ARRASATE

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Sentimentuei eta beharrei dagozkien edozein eratako lotura luzeak ebitatu egin behar dituzu Aries, baita ezkontzea ere, etengabeko eztabaida eta auziak suertatuko litzaizkizuke eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Momentu ezin hobea da oraingoa ezkontze-kotan dauden emakumeentzat, lagun ezin hobeak izango bait dira. Gizonezkoek berriz, azkenaldian barnean daukaten oldorkortasuna baretu arte itxarro beharko.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Edo zertara moldatzeko gaitasuna da dudarik gabe daukazu birtuterik onena, baina oso osoko ezkontza lortuko baduzu hobe izango duzu udaberriara arte itxarotzea.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ezkonbitza, gehiegizko maitasunez daroazu, Cancer, baina, berehala etorriko dira ados jarri ezinak eta eztabaida aldiak. Hau ez gertatzeko, ez zaitetz azaldu hain jeloskor lagunaren aurrean.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Makal zabilta maitasunean, baina laguna bihotz zabala izango da zurekin. Egoera alderantzizkoa denean ere jarraera bera azaldu lagunarenganako.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Familia giroa atsegin duenarekin ezkontze-kotan bazara, asmatu egingo duzu, parrandarako joera daukana bada berriz, hobe izango duzu hain garrantzitsua den pausoa hurrengo baterako uztea.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Haserre bizian zabilta azkenaldian, eta lagunarengan husten duzu umore txar guztia. Saiatu umore txar hori dagozkion tokian husten eta elkarren arteko giroa baretu egingo da.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ezkonbitza ezteki eta itxaropenez eramaten saiatu zara orain arte, baina egunerokotasunaz aspertzen hasia zara, banatzean ere pentsatu duzarik. Ilusioak pizten saiatu, ezer erabaki aurretik.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Gozo-gozo zuade lagunarekin. Portaera hau tinkotu asmoz edo, ezusteko opariren bat jasoko duzu berarengandik. Edozein elkartetako kide zarela ere berdin.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Lur jota eta etsita zaudete; portaera honekin ezkonbitza goibeltzea baino ez duzu lortuko. Etxetik kanpoko ardurak atarian ahazten saiatu.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra


Zoriontsu sentitzen zara eta laguna ere zoriontsu sentitzea lortu duzu. Inguruko denekin izan zaitetz horrelakoa, eskertuko dizute eta.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Aspaldiko neska/mutil lagunaren batekin egingo duzu topo, garai zoriontsua gogoraziko dizuna. Eziozu begi zuriz begiratu, badakizu ahulkerian erraz erortzen zarela eta.

AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esalguzu, konpondu egingo dizugu!


Antena parabolikoak, Indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnok: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

IKUS-ENTZUN

ZURE HAURRENTZAKO BIDEO DIDAKTIKOAK



BIDEO HAUEKIN


Gizartean bizi gara

Ingurua ezagutzen

Etorkizuna ezagutuz

geureganatu egiten dugu

LASTER ZURE ETXEAN!!!



Okendo 5,
79 26 99 ARRASATE

VECTRA GT.

KIROLARIEK AUKERATUA



Enrike Alonso, Lotus taldeko txirrindularia Arrasateko **Talleres OLA**n bere kotxe berria jasotzen: **OPEL VECTRA G. Ta** Segurtasuna eta erosotasuna utzi gabe, gidaera deportiboa maite dutenentzat kotxe egokia. Bergarako eta Arrasateko **Talleres OLA**, **OPEL** kontzezionari ofizialean erakusgai duzu **OPEL aukera osoa.**

Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzezionaria

Kontzezionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71